



## **100 LAGUN BEHAR DITUGU *GASTEIZ ATLASA* PERFORMANCEAN PARTE HARTZEKO**

**ATLAS** agertokian 100 lagun biltzen dituen performance bat da. Bakoitzak bere lanbidea du, eta bere nortasuna. Gizon-emakumeon antolakuntzaren halako atlas bat da, gizakiaren irudikapen garaikide bat, honek gizartean duen rolaren, egitekoaren, eta betekizunaren araberakoa.

**ATLAS** performance bat da, gainera, ideia bat, proiektu bat, elkarrekin burututako ekintza bat, lurraldearekin lotzeko modu bat. Parte hartzaileek gertakizun aparta sortzen dute, toki eta une jakin batean. Arteak gizartean eginkizun bat betetzen duelako ustea da lan honen akuilagarria. Beuysek esan zuen bezala, «geu gara iraultza».

**ATLAS** Ana Borralhok eta João Galantek (Lisboa) asmatu eta zuzendutako proiektu bat da. **ATLAS GASTEIZ** zer izan daitekeen zehatzago jakin nahi duenarentzat, hona Lisboako Teatro |Comunal-eko estreinaldiaren bideoa: <http://vimeo.com/35137562>.

Parte hartu edota informazio gehiago jaso nahi izanez gero, bidali mesedez mezu bat datuak emanez (lanbidea, adina, telefonoa eta helbidea) [proklamar@gmail.com](mailto:proklamar@gmail.com) helbidera

Lanbidea, guretzat, norberak gizartean bete uste duen eginkizuna da, eta ez du zertan bat etorri diru-iturriarekin. Edozein esparrutan jarduten duten gizon-emakumeak nahi ditugu: etxeko langileak, ikasleak, artistak, poliziak, ekonomialariak, saltzaileak, elektrizistak, hegaldi-zerbitzariak, astronautak, jostunak, ile-apaintzaileak...

**ATLAS GASTEIZ 5. PROKLAMA**ren barruan dago (Artiumek eta AZALAK elkarlanean garatzen duten arte bizien programa).

**Artium**

**azala**  
espacio